



BideOtik IKUS-ENTZUNEZKO BESTELAKO NARRATIBEI BEGIRA 2021 DEIALDIKO ONARRIAK

1. AURKEZPENA

Dokumentu honek Azkuna Zentroaren deialdia irekitzen du, **BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira** programan parte hartzeko, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko zinema- eta ikus-entzunezko programazioaren barruan, 2021eko otsailean eta martxoan.

Deialdia berriaz zuzenduta dago bideo-adierazpenaren inguruko lanak egiteko ikus-entzunezkoak erabiltzen dituzten artistei eta bideo-sortzaileei.

Azkuna Zentroa Gizarte eta Kultura Garaikideko zentroa da Bilbon, Euskal Herrian, eta kultura garaikidearekin lotzen du gizartea, sei programazio-ildoren bidez: Arte garaikidea, Zuzeneko arteak, Zinema eta Ikus-entzunezkoak, Gizartea, Kultura digitala eta Literatura. Denak elkarren arteko harremanetan, programazio hibridoa eta multilateralak sortuz, garaikidetasunaren egunerokotasunari bide emateko, eta bitartekaritza eta hezkuntza erabilia, jakintza kritikoa sortzeko, eta artearen eta artisten bidez gizartea eraldatzeko.

Programazioaren zati gisa, hainbat ekimen garatzen ditu, gaur egungo zinemaren eta ikus-entzunezkoen inguruko sorkuntzari laguntzeko eta, horretarako, ikusleen komunitateetara hurbiltzen da, egindako lanen edo sormen-prozesuen bidez.

BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira programa ikus-entzunezko sorkuntzaren eta publikoaren arteko topagunea da, helburu hauekin:

- Ikus-entzunezko sorkuntza artistikoa, kulturala eta sortzailea ikustarazten jarraitzea sorkuntzarako, gogoetarako eta kultura eta gizartea eraldatzeko tresna gisa.

- Ikus-entzunezko sektorearen garapena sustatzea, tokiko eta nazioarteko ikus-entzunezko lanak zabalteko gune bat sortuz.
- Gaur egungo ikus-entzunezko sorkuntzaren inguruko hedapena eta erakusketa sustatzea.
- Hizkuntza berrien erabilera sustatzea, mugimenduan dagoen irudiaren bidez.
- Azkuna Zentroa Bilboko elkargune gisa finkatzea, ikus-entzunezko sorkuntza-katean parte hartzen duten eragileen arteko elkarreraginerako.
- Erakusketak ez du izaera lehiakorrik izango; bideoaren inguruko praktika artistikoak eta esperimentalak sustatzea eta ezagutzera ematea izango du xede.

Hautatutako obrak **BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira** programan proiektatuko dira Azkuna Zentro-Alhóndiga Bilbaon, Balorazio Batzordearen epaia ezagutu ondoren zehaztuko den programazioaren arabera.

Piezak proiektatuko diren saioetan, bide emango da ikus-entzunezko sorkuntza-prozesuari buruzko trukean eta hizketaldian interesa duten ikusleekin elkartzeko. Horregatik, hautatutako piezen egileen presentzia eskatuko da, proiektatzeko ezarritako datan. Saio horietan mahai-ingurua egingo da bertaratutako ikusleekin, eta saioak Azkuna Zentroko Golem Alhóndiga zinema-areto batean izango dira (I. Eranskina. Zuzkidura teknikoa).

2. PREMISAK

1. Lan hauek balioetsiko dira:

- Errealaren denaren zinemari buruzko lanak, hau da fikziozkoa ez den dokumentala.
- Ikuspegi estetikoetik eta ikus-entzunezko praktika garaikidetik garatutako lanak.
- Esperientzia profesionaleri, biografiei, ibilaldiei eta bizitzako istorioei lotutako gaiak jorratzen dituzten lanak, feminismoetik, dibertsitateetik eta arlo sozialetik hurbil dauden narratiba berriak aintzat hartuta.
- Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren balioekin, xedearekin eta kultura-estrategiarekin bat etortzen diren lanak, gizarte sortzaileago, kritikago eta anitzagoa eraikitzen laguntzeko, arreta berezia eskainiz gaur egungo euskarazko sorkuntzari eta artearen ikuspegi feministari.

2. 2018tik aurrera garatutako proiektuek balorazio positiboa izango dute.

3. Lehenago lehen aldiz aurkezten diren lanek balorazio positiboa izango dute.

4. Egile bakoitzak nahi duen obra-kopurua inskriba dezake.

5. Ez da onartuko instituzioen edo publizitatearen arloko piezarik.

6. Ez da onartuko arraza-bereizkeria duen lanik, ez eta indarkeria, edo animalien eta generoaren aurkako tratatu txarra eragiten duen lanik ere.

7. Lana ekoizteko herrialdea edozein izan daiteke.

8. Hona hemen deialdi honetan aurkezten diren piezek eduki beharreko ezaugarri teknikoak:

- Erresoluzioa: 1920 x 1080.
- HD formatua.
- Edozein artxibo digital, DCP.

9. Proiektatu beharreko kopia Azkuna Zentroari ematea, gaztelaniazko eta / edo euskarazko azpitituluekin, piezak hala eskatzen badu.

3. EPEA

Izena emateko epea **2020ko ekainaren 15etik 2020ko irailaren 30era arte** egongo da zabalik. Deialdiari buruzko erabakia **2020ko azaroaren 16tik aurrera** jakinaraziko da. Hautatutako pertsonak onartzen duela berretsi beharko du, astebeteko epean, erabakia jakinarazten zaionetik. Sorkuntza/lana **2021eko urtarrilaren 15a baino lehen** aurkeztuko da. Programa 2021eko otsailean eta martxoan izango da.

4. DOKUMENTAZIOA

Izena emateko, **Festhome plataforma** erabil daiteke edo, bestela, mezu elektronikoa bat bidali behar da deialdiak@azkunazentroa.eus helbidera, honako informazio honekin:

- Lanaren izenburua.
- Deskribapena.
- Iraupena.
- Elkarrizketen hizkuntza (halakorik bada).
- Zuzendariaren edo zuzendarien izena eta biografia labur bat.
- Lana ekoizti den herrialdea.
- Noiz egin den.
- Harremanetarako datuak: harremanetarako pertsona, telefonoa, webgunea, helbide elektronikoa.
- Egilea edo egileak non eta noiz jaio diren.
- Online ikusteko esteka.

Inskribatutako obren fitxek, gainera, dokumentazio hau eduki beharko dute:

- Hiru fotograma (gutxienez 1200 x 700 pixel), jpg edo png formatuan.
- Zuzendariaren edo zuzendarien argazki bat (gutxienez 800 x 600 pixel), jpg edo png formatuan.

5. PROIEKTUAREN HAUTAPENA

Balorazio Batzordeak proiektua hautatu ondoren, horren berri emango zaio hautatutako pertsonari, eta, adjudikazioa jakinarazten zaionetik aurrera, aste beteko epea izango du onartzen duela berresteko.

Finkatutako epean adjudikazioa onartuz gero, adjudikaziodunak 10 egun balioduneko epea izango du, adjudikazioaren berri eman zaionetik hasita, dokumentu hauek aurkezteko:

- NANaren fotokopia edo pasaportearen.
- Aurkezpena egiteko eta pieza erakusteko eskatutako egunetan libre egongo dela egiaztatzen duen sinatutako adierazpena.

6. BATZORDEA ETA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Balorazio Batzordeak baloratuko ditu aurkeztutako proiektuak. Batzorde hori proiektuaren koordinatzaileek eta Azkuna Zentroko arte-taldeak osatuko dute.

Proiektuak balioesteko irizpide hauek hartuko dira aintzat:

- Proiektuaren kalitate teknikoa eta artistikoa.
- Aurkeztutako proiektuaren originaltasuna eta sormena.
- Proiektua gunearen testuinguruari eta deialdiaren xedeari egokitzea.
- Azkuna Zentroaren proiektuarekiko testuinguru-harremana.

7. DOTACIÓN DE AZKUNA ZENTROA

Hautatutako proiektuen egileek honako diru-kopuru hau jasoko dute proiektu bakoitzeko, eskubideak eta piezaren kopia, saioaren aurkezpena eta ondorengo solasaldia direla-eta:

- 100€ gordin film labur bat bada (30 minutu baino gutxiagoko iraupena)
- 200€ gordin film ertain bat bada (30 eta 60 minutu arteko iraupena)
- 300€ gordin film luze bat bada (60 minutu baino gehiagoko iraupena)

Proiektzioaren egunean egileek egon beharko dute, beraz kopuru horri bonu bat gehituko zaio, bidaia, ostatu eta dietarako, irizpide hauei jarraituz:

- 350€ gordin, egileen joan-etorriaren abiapuntua 500 km baino urrutiago badago.
- 250€ gordin, egileen joan-etorriaren abiapuntua 200 km eta 500 km arteko distantzian badago.
- 150€ gordin, egileen joan-etorriaren abiapuntua 100 km eta 200 km arteko distantzian badago.
- 50€ gordin, egileen joan-etorriaren abiapuntua bertan badago (100 km-raino)

Azkuna Zentroak banku-transferentziaren bidez ordainduko ditu kopuru horiek, egileak faktura egin ondoren. Pieza proiektatu eta mahai-ingurua egin ondoren ordainduko da. Faktura atzerriko herrialde batetik egiten bada, fakturarekin batera egoitza fiskalaren ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko da; bestela, Azkuna Zentroak ezarritako zenbatekoaren % 24 atxiki beharko du.

8. EGILEAREN BETEBEHARRAK

BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narrazioei begira programan parte hartzeko hautatutako ikus-entzunezko piezaren egileek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Proiektatu beharreko kopia Azkuna Zentroari ematea, gaztelaniazko eta / edo euskarazko azpitituluekin, piezak hala eskatzen badu.
- Azkuna Zentroko komunikazio-sailarekin lankidetzan aritzea, eta zentroaren prentsa- eta komunikazio-lanetarako beharrezko dokumentazio guztia ematea (dokumentazio grafikoa, artistaren biografia, piezaren sinopsia). Dokumentazio hori Azkuna Zentroak erabiliko du programa komunikazio-euskarrietan zabaltzeko.
- Deialdi honetan aipatzen diren betebeharrak betetzea.
- Ikus-entzunezkoa deialdi honetan inskribatzen duen eta **BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narrazioei begira** programan parte hartzeko hautatzen den pertsona naturalak edo juridikoak konpromisoa hartuko du programa honetan izan duen parte-hartzea publikitatean eta prentsako materialean nabarmentzeko, antolatzaileek emango dioten Jaialdiaren erramua erabiliz.

9. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileak aurkeztutako proiektuaren originaltasunaren eta egiletzaren erantzule izango dira, eta proiektuaren gaineko legezko jabetza intelektualaren eskubideak dituztela bermatuko dute. Ildo horretan, Azkuna Zentroaren erabilera baketsua bermatuko dute, eta berriaz salbuetsiko dute, berme hori ez betetzeak zuzenean edo zeharka eragin litzakeen kalte-ordainen erantzukizun guztietatik. Merkataritzako jarduerak egiteko erabilera berriaz bazter utzirik, Azkuna Zentroak hautatutako proiektuei lotutako informazioa (testuala, ikus-entzunezkoa eta grafikoa) erabili ahal izango du bere jardueren berri emateko. Osorik edo partzialki eta bakarrik edo bestelako edukiekin batera erabili ahal izango du.

Hortaz, hautatutako pertsonak Azkuna Zentroari lagako dizkio eskubide horiek, legeak baimendutako gehienezko denboraz, mundu osoko esparru geografikorako, liburuxkak paperean eta euskarri digitalean argitaratzeko (Azkuna Zentroak kudeatzen dituen web orria eta sare sozialen profilak, eta Azkuna Zentroaren jarduerak biltzen dituzten katalogoak edo argitalpenak barne).

Hautatutako pertsonak berriazko baimena emango dio Azkuna Zentroari bere izena erabil dezan egoki iruditzen zaion eran eta deialdi honen helburuen barruan.

Azkuna Zentroak ez du izenpetzen, ez bere gain hartzen programan parte hartzen duten egileek eta mahai-inguruan parte hartzerako gonbidatutako pertsonen ekitaldi horretan emandako iritziak eta egindako adierazpenak.

10. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek baimena emango diote Azkuna Zentroari beren izena, kargua, irudia eta, noiz edo noiz, ahotsa -Azkuna Zentroko espazioetan egiten diren argazki edo bideoetan jasotakoak- erabiltzeko, geroko informazio-zabalkunderako edo sustapenerako. Hori guztia, beren ohorerako eskubidearen aurka egon daitezkeen erabilerak eta aplikazioak kenduta, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak ezarritako moduan. Aurreko eremutik kanpoko bestelako erabilerak berriaz utziko dira baimen honetatik kanpo.

11. DATUEN BABESA

Parte-hartzaileek onartuko dute deialdi honetan emandako datu pertsonalak Azkuna Zentroaren titulartasuneko fitxategian sar daitezkeen -ondorio horretarako, Arriquir Plaza 4, 48010, Bilbo helbidean egoitza izanda-, deialdi hau eta haren administrazioa, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izateko. Parte-hartzaileak bere lankideen datu pertsonalak ematen baditu, haien baimena jaso beharko du datu horiek Azkuna Zentroari jakinarazteko, helburu berberarekin.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko, mugatzeko eta eramangarriak izateko eskubideez baliatu ahal izateko, posta elektronikoko mezua bidali beharko da

Info@azkunazentroa.eus helbidera, mezuaren gaiari sarbide-
eskubideak jarrita, eta, eranskin gisa, eskutitz bat -datuen
titularrak sinatuta eta jakinarazpenak egiteko helbidea adierazita-,
eta NANaren edo antzeko egiaztagiriko baten kopia bat gehituta.

12. JURISDIKZIOA

Bi alderdien artean sor litezkeen gatazkak konpontzeko
adiskidantza ez ebatzpenik lortzen ez bada, Bilboko epaitegien
eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira, beren
eskumenari berariaz uko eginda.

13. OINARRIEN ONARPENA

Deialdira aurkezte hutsagatik, parte-hartzaileek onetsi egingo
dituzte oinarri hauek.

- Bilbon, 2020ko ekainaren 15ean -

I. ERANSKINA. GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMEN ZUZKIDURA TEKNIKOAK

Areto bakoitzeko datu teknikoak	Edukiera	Proiektore digitala	Proiektorea 35 mm	Proiektorea 16 mm	3D Mota	Soinua
Auditorioa	392	BAI	BAI		Dolby 3D	DOLBY A + SR + DOLBY DIGITAL SURROUND 6.1
1 aretoa	246	BAI	BAI		Dolby 3D	DOLBY A + SR + DOLBY DIGITAL SURROUND 6.1
2 aretoa	97	EZ	BAI		EZ	DOLBY A + SR + DOLBY DIGITAL
3 aretoa	88	EZ	BAI		EZ	DOLBY A + SR + DOLBY DIGITAL
4 aretoa	132	EZ	BAI		EZ	DOLBY A + SR + DOLBY DIGITAL SURROUND 6.1
5 aretoa	70	EZ	BAI		EZ	DOLBY A + SR + DOLBY DIGITAL
6 aretoa	144	BAI	BAI		EZ	DOLBY A + SR + DOLBY DIGITAL SURROUND 6.1
7 aretoa	72	EZ	BAI	BAI	EZ	DOLBY A + SR + DOLBY DIGITAL